

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Jabetzan eskainitako babes ofizialeko 133 etxebizitzaren hasierako adjudikaziodunen zerrenda argitaratu da

*Alegazioak aurkezteko epea uztailaren 4an bukatuko da*

Asteazkena, 2018.eko ekainak 20

Nafarroako Gobernuak NASUVINSA sozietate publikoaren bitartez Iruñean, Burlatan eta Leitzan eskainitako babes ofizialeko 133 etxebizitzaren [hasierako adjudikaziodunen zerrenda](#) osatu du; horietatik 123 babes ofizialeko etxebizitzak dira eta 10 prezio libre tasatukoak. Adjudikaziodunen zerrendaren argitalpenaz, alegazioak aurkezteko epea ireki da uztailaren 4a arte, eta honen ondoren, behin betiko adjudikaziodunen zerrenda zabalduko da.

Zerrenda herritarren eskura jarri da NASUVINSAREN bulegoetan (Iruleko San Jorge Etorbideko 8an, beheko solairuan) eta Nafarroako Gobernuak Tuteran duen Herritarren Arretarako Bulegoan (Foru Plaza, 5-6). Horrez gain, [Nafarroako Gobernuaren etxebizitza-atarian](#) kontsulta daiteke.

Behin-behineko adjudikazioari alegazioak aurkeztu nahi dizkieten pertsonak NASUVINSAK Iruñean dituen bulegoetara jo dezakete. Ez dira onartuko eskaera bakoitzaren inskripzioan baloratuta gelditu ziren alderdiei buruzko alegazioak. Alegazioren bat aintzat hartuz gero, zerrendak aldatzeko aukera izanen da.

Eskaintzari lotutako etxebizitzak etxebizitza babestuko lau sustapen hauetakoak dira:

76 BOE [salerosketa-araubidean](#), Iruñean (Arrosadia).

31/1-0016/2017 espedienteko babes ofizialeko etxebizitzak NASUVINSAREN sustapen batekoak dira.

37 BOE [salerosketa-araubidean](#), Burlatan.

Adania Residencial S.L. enpresak sustatutako babes ofizialeko etxebizitzak, 31/1-0019/2017 espedienteari atxikitakoak.

10 BOE [salerosketa-araubidean](#), Leitzan.

Kasu honetan, PAPINDA S.L. enpresak sustatutako babes ofizialeko etxebizitzak dira, 31/1-0023/2017 espedienteari atxikitakoak.

10 PTE [salerosketa-araubidean](#), hauek ere Leitzan.

Leitzan kokatutako prezio tasatuko 10 etxebizitza hauek ere PAPINDA S.L. enpresak sustatutakoak dira, 31/T-0004/2017 espedienteari atxikita.

Etxebizitzei, planoari, prezioari eta kalitateari buruzko informazio guztia

Nafarroako Gobernuaren [etxebizitzari buruzko atari tematikoan](#) eskura daiteke.